

FAKULTATEKO OHIKO BATZARRAREN AKTA **(2024ko azaroak 28)**

Bertaratutakoak eta bertaratu ez direnak (Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 22.2 artikulua)

Dekanotza taldea

1. Del Valle Loroño, Ana Irene – Dekanoa
2. Ayestaran Yarza, Alazne – Jarduneko Idazkaria
3. Marauri Castillo, Íñigo- Dekanordea
4. Iturbe Tolosa, Andoni- Dekanordea
(bertaratu ezina adierezi du)
5. Larrinaga Artetxe, Eli – Dekanordea
(bertaratu ezina adierezi du)
6. De Ayala Bilbao, Amaya- Dekanordea

Administrazio burua

7. Berrio Rodríguez, Igone

IRI iraunkorra

8. Meso Ayerdi, Koldo
9. Otero Gutiérrez, Beatriz
10. Novo Arbona, Ainhoa
11. Beaskoetxea Gangoiti, José M^a
12. Mendiguren Galdospín, Terese (bertaratu ezina adierezi du)
13. Apodaka Ostakoetxea, Eduardo
14. Miguel Saez de Urabain, Ainara
15. De la Peña Varona, Alberto (bertaratu ezina adierazi du)
16. Urizar Lazkano, Itziar (bertaratu ezina adierazi du)
17. Casado del Río, Miguel Angel
18. Moure Peñin, Leire
19. Ayestaran Yarza, Alazne
20. Zubiaga Arana, Erik
21. Miguelez Juan, Blanca
22. Larrondo Ureta, Ainara
23. Gorostidi Bidaurreazaga, Izaro
24. Monge Benito, Sergio
25. Agirreazkuenaga Onaindia, Irati
26. Telleria Herrera, Imanol (bertaratu ezina adierazi du)
27. Elordui Urkiza, Agurtzane
28. Garai Artetxe, Estitxu
29. Etxano Gandariasbeitia, Iker

IRI iraunkor ez doktoreak eta IRI ez iraunkor doktoreak

30. Azkunaga Garcia, Leire (ez da bertaratu)
31. Ahedo Rodríguez, Unai (bertaratu ezina adierezi du)
32. Pineda Martínez, Paula

Beste IRI batzuk

33. Zaldua Calleja, Iñaki

TEKAZEL

34. Arandia Urtiaga, Igone
35. Bengoetxea Larrinaga, Aitor
36. García Vázquez, M^a José
37. Ocerin Beraza, Isabel (bertaratu ezina adierazi du)
38. Alonso Blanco, Daniel

Ikasleak

39. Aiestaran Goikoetxea, Oneka (ez da bertaratu)
40. Zabalo Urain, Manex (ez da bertaratu)
41. Zubiría Alicostes, Uxue (ez da bertaratu)
42. Gastañaga Lazcano, Unax (ez da bertaratu)
43. Arrastia Mauleón, Onintze (ez da bertaratu)
44. Etxegia Pérez, Julen (ez da bertaratu)
45. Martínez Pertuz, Valerie Gabriela (ez da bertaratu)
46. Zamora Díaz, Martxel
47. Hernández Figueroa, Agustina

Bestalde, eta gai-zerrendari heldu aurretik, bilkura honetako aktan jaso behar da ikastetxeko idazkari akademikoa arrazoi justifikatuengatik ez dagoenez, Alazne Ayestaranek ordezkatzuko duela haren eginkizunetan. Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 19. artikuluan jasotzen denez, bilkuran idazkaria izatea beharrezkoa da. Beraz haren ordezkaria jakinarazi eta gai ordenari hasiera eman aurretik aktan jasota geratzen da. Halaber, gaurko ordezkapenaren berri eman zaio Idazkaritza Nagusiarri.

2024ko azaroaren 28an, ostegunean, 12:00etan, UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzarra bildu da, eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, bigarren deialdian eta ohiko bilkura egiteko, dekanoa andrea buru dela eta zerrendatutako pertsonak bertaratu direla, aztergaien zerrendako puntu hauek lantzeko:

1. Dekano andrearen txostena

Dekano andreak honako gaietarako buruzko informazioa eman du.

Lehenengo dekanorak Fakultateko Batzarrerako hauteskundeetan eta errektoretzako hauteskundeetan izan den parte-hartzea altua nabarmendu du. Alde batetik, Fakultateko Batzarreko ordezkari berriei ongietorria eman eta zoriondu ditu. Baita ere, gure Fakultateko diren irakasle Estitxu Garai, Bizkaiko Errektoreorde izango duguna eta Asier Blas, Ikasleen eta Partaidetzaren Errektorearen ardura hartuko duena.

Bigarrenik, Dekano andreak ikastegiaren aurrekontuan irailean jasotako laguntza batzuen berri eman du. Laguntza horiek UPV/EHUko Plan estrategikoaren ekintza lerroak garatzea dute helburu. Eta maiatzaren 20an Gobernu Kontseiluaren Batzorde Ekonomikoak 2024ko aurrekontuen 150.000€ osagarri banatzeko hartutako erabakiaren ondorioz heldu dira ikastegietara. Hiru laguntza mota jaso dira ikastegiei bultzatu eta sustatu beharreko esparruen arabera: (a) Nazioartekotze ekintza lerroak eta jarduerak (13.141,96 €); (b) Prestakuntza dualaren ekintzak eta jarduerak (34.090,91 €); (c) Graduako proiektu akademikoak garatu, bultzatu eta sustatzeko jarduerak (4.000 €). Nazioartekotze eta prestakuntza dualaren kasuan Ikastegiei diru laguntzak banatzeko irizpidea Jardun programan esleitutako kreditu kopuruan oinarritzen da. Diru-partidak erabiltzeko epea eta baldintzak kontuan izanda, honela erabiliko da: -.sare sozialetan Fakultateko graduak promozionatzeko kanpaina (Tik Tok), -.prestakuntza dualaren programaren azterketa eta ebaluazioa, -.mugikortasun programen promozioa Hego Amerikako unibertsitate berriekin, batez ere graduondokoen titulazioak, -.GKZ fakultateko Nazioartekotze eta Dualako programen “marka” sustatu, eta orohar Fakultatekoa sustatzeko materiala prestatuko da, -.material inbentariagarria (13.000 euro gorde dira VI. Kapituluako gastuetarako, beti ere aipatutako esparrurako).

Hirugarrenik, CAMPUS BIZIA LAB proiektua martxan dago jada gure Fakultateko azpiegiturak eta espazio publikoa jasangarriagoa egiteko eta birmoldatzeko parte hartze eta konpromisoa setatzeko (1700 euro). Eskuragarri dago interesa duen edozeinentzat.

Azkenik, Dekano andreak 2024an GRALen datuak aurkeztu ditu: 443 GRAL defendatu ziren hiru deialdietan. Horietatik %97,06k gainditu zuen, euskaraz %29,57, gazteleraz %68,84 eta ingelesez %1,58. 2024/2025 ikasturterako 510 GRAL esleitu dira.

Eta honen bestez bukatutzat ematen du Dekano andreak bere txostena.

2. Ikastegiko batzorde eta epaimahaietarako proposamenak

Ikastegiko 2024-2025 ikasturteko honako batzorde eta epaimahaietarako proposamenak onartu dira:

-Fakultateko Batzordeak eta epaimahaiak

-5. eta 6. epaimahaiak

-GRAL epaimahaiak

Bestalde, titulazio, maila eta moduluetakoko koordinatzaileen gaineko informazioa eman da, baina ez da erabakirik hartu, helburu bakarra, horren berri ematea izan baita.

3. Batzorde Iraunkorraren ordezkarien proposamena (IIP eta TEKAZEL)

Hautagaitza bakarra aurkezten da hautatu beharreko kolektibo guztietan eta aho batez onartzen da aurkeztutako proposamenak. Beraz, izendatuak geratzen dira Fakultateko Batzorde Iraunkorraren ordezkari berri hauek:

a) Irakasle eta ikertzaileen kolektiboan:

-IIP iraunkorra: Koldo Meso Aierdi, Ainara Miguel Saéz de Ubaran, Leire Moure Peñín, Beatriz Otero Gutiérrez, Imanol Telleria Herrera.

-IIP doktorea ez-iraunkorra eta IIP ez-doktore irankorra: Leire Azkunaga Garcia.

-Bestelako IIP: Iñaki Zaldúa Calleja.

b) TEKAZEL kolektiboan: Igone Arandia Urtiaga.

4. Hauteskunde Batzordearen ordezkarien hautaketa (IIP eta TEKAZEL)

9. artikulua araberak, Hauteskunde batzordeen osakerak honako hau izan behar du:

- a) Dekanoa edo zuzendaria edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da).
- b) Idazkari akademikoa (batzordeko idazkaria izango da)
- c) Bestalde, ondokoak ere izango dira ikastegiko hauteskunde batzordeko kide. Guztiak egin den zozketa aleatorio bidez ikastegiko batzarreko IIP eta TEKAZELen kolektiboetako kideen artean aukeratuak izan dira:
 - Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreen artean, Ainara Miguel Saez de Urabain.
 - Irakasle-ikertzaile iraunkor ez doktoreak eta irakasle-ikertzaile ez-iraunkor doktoreen artean, Unai Ahedo Rodriguez.
 - TEKAZELen artean, Daniel Alonso Blanco.

5. 2024/2025 ikasturteko azterketen egutegian halabeharrezko aldaketaren proposamena

Akademia antolakuntzarako Dekanorde andreaki hitza ematen zaio. Dekanordeak ondokoak azaltzen du. 2025eko selektibitatearen data berriak direla eta (ekainak 3,4 5) bigarren lauhileko ohiko deialdiaren azterketen data egokitu behar izan dira halabeharrez: ekainaren 11, 12, 13ra aldatu dira hurrenez hurren. Batzarrak proposatu den eguneraketa onartu du.

Ikasle eta irakasleei modu ofizialean aldaketa honen berri emango zaie.

6. 2025/2026 titulazioen plazen muga proposamena

Dekano andreak honako proposamen hau azaldu du, eta Batzarrak onartu egin du. Graduei dagokionez, ez dago aldaketarik 2024/2025 ikasturtearekin alderatuz. Graduondokoei dagokionez, bi masterren batzorde akademikoei eskatuta, aldaketa proposatu da (%10).

2025-2026ko Graduondoko titulazioen plazen muga proposamena:

Kazetaritza, 180

Ikus-entzunezko Komunikazioa, 70

Publizitatea eta Harreman Publikoak, 120

Soziologia, 70

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa, 70

Kazetaritza+Ikus-entzunezko Komunikazioa gradu bikoitza, 15

Kazetaritza+Publizitatea eta Harreman Publikoak gradu bikoitza, 15

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa+Soziologia, 20

2025-2026ko Master ofizialen titulazioen plazen muga proposamena:

EITB-Multimedia Komunikazioa UPV/EHU, 20

Gizarte Komunikazioa, 25

Ikasketa Feministak eta Generokoak, 27 (% 10eko igoera aurreko ikasturtearekin alderatuta)

Nazioarteko Ikasketak, 32 (% 10eko murrizketa aurreko ikasturtearekin alderatuta)

Gobernantza eta Ikasketa Politikoak, 27

Historia Garaikidea, 25

Ikerketa Ereduak eta Arloak Gizarte Zientzietan, 20

Komunitate Garapena eta Parte Hartzea, 30

Multimedia Kazetaritza, 20

Subiranotasuna Europako Herrietan, 20

7. Graduondokoak

Hitza eman zaio Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzako Dekanordea den Amaya de Ayala Andreari. Ondoko gaiak aurkezten ditu:

7a) Master irakasgaiaren sailaren atxikipena aldatzea (ESFEG). Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterreko (ESFEG) irakasgaiaren ardura duen saila aldatzea eskatzen da ikasketa-plana egokitzeke. Irakasgaia 501718 Población y Reproducción Social da eta Ekonomia Aplikatua sailetik Soziologia eta Gizarte Lagintza sailera pasako da. Sailen eta Batzorde Akademikoen akordioak izanda, Fakultateko Batzarrarena izatea ere onartzen da.

7b) 2025/2026 ikasturterako Berezko Ikasketen proposamenak

Berezko Ikasketen hiru proposamenen aurrean, Fakultateko espazioen erabilera onartu da:

- UPV/EHUko Unibertsitate hedakuntzako ikastaroa: Fotografía Avanzada para Entornos Profesionales en Medios y Publicidad (organo proposatzailea: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate saila)
- UPV/EHUko Unibertsitate hedakuntzako ikastaroa: Curso de Piloto de Drones y Grabación Aérea (organo proposatzailea: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate saila)
- Unibertsitateko Aditu Titulua: Experto/a en Suicidio: conocimiento, prevención y actuación en entornos psicosociocomunitarios (organo proposatzailea: Soziologia eta Gizarte Langintza saila).

8. Azpiegituren erabilerarako baimena

Xabier Murua Imaz - Gizarte eta Komunikazio Zientzien fakultateko ikertzaile nagusiak "XIII Ituna Jardunaldia" Bizkaia Aretoan antolatzeke eskatutako abalari aldeko txostena eman zaio.

9. Irakasleen Plazak

Honako 5 plaza hauek eskatzeari aldeko txostena eman zaio:

- 1- Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa saila:
Laguntzaile doktore, elebiduna eta arduraldia osokoa izatetik, Agregatua, elebiduna eta arduraldi osora izatera (PAC8L2D00110-6)
Erretiroaren ordezkapena agregatua, hirueleduna eta arduraldi osokoa izango da.
- 2- Soziologia eta Gizarte Langintza:
Laguntzaile doktore, hirueleduna eta arduraldia osokoa izatetik, Agregatua, hirueleduna eta arduraldi osora izatera (PAC8L2 337 4)
Laguntzaile doktore, elebiduna eta arduraldia osokoa izatetik, Agregatua, elebiduna eta arduraldi osora izatera (PAC8L2 337 3)
Laguntzaile doktore, elebiduna eta arduraldia osokoa izatetik, Agregatua, elebiduna eta arduraldi osora izatera (PPAC8L2 337 13).

10. Galde-eskeak

Honako gai hauek aipatu dira:

- Sergio Monge batzarkideak hitza hartu du eskaria egiteko. Haren ustez, Fakultateko Batzarra izanik batzordeak izendatzen dituen, "erreaktiboak" ez diren batzordeen kasuan, hala nola, euskara eta berdintasun batzordeak, batzarkideek horien bilkuren gaien eta akten berri izan beharko lukete urtearen bukaeran. Hori dela eta eskaera luzatzen du hala izan dadin.

-Experto/a en Suicidio: conocimiento, prevención y actuación en entornos psicosociocomunitarios aditu tituluaren proposamenaren inguruan Martxel Zamora batzarkideak psikologia ikasleen kezka adierazi du. Azaltzen du titulazioaren izenburuak eztabaida sortu duela Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia sailean. Baita ere, ikasle kontseiluak bere kontrako jarrera adierazi duela. Izan ere ez omen dago adosmena titulazioaren izenburuan "psico" atxikia jartzearekin. Dekanoak argitzen du Fakultateko Batzarrari ez zaiola eskatzen titulazioaren onarpena, fakultatearen espazioak erabiltzeko baimena baizik. Izan ere titulazioaren proposamena onartzea Graduondoko Batzordeari dagokio. Estitxu Garaik batzordekideak hitza hartzen du eta Zamora jaunaren kezka aktan jasotzea eskatzen du. Aldi berean, Ainhoa Novo andreak ikaslearen ordezkariari gomendatzen dio kezka Graduondoko Batzordean aurkeztea.

-Fakultateak material inbentariagarriaren kapituluan doktoregoko ikasleentzako ordenagailuak erosteko aukeraz galdetu du Iñaki Zaldua batzarkideak.

Beste aztergairik izan ez denez, dekanook bilera amaitutzat jo du 13:50ean eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut, Leioan, 2024ko azaroaren 28an.

Dekanoaren oniritzia
Ana Irene Del Valle

Idazkari Akademikoa
Ordezkapenagatik, **Alazne Ayestaran**